

# Noaia!!!

www.noaia.com



2008ko udal aurrekontu proposamenak aurrera egin du



## Usurbilgo

*Pasarte historiko batzuk*



Usurbilgo hainbat irudi eta argazki  
**DVD batean jaso dira**



**NEURE BURUA NIK NEUK  
GIDATZEKO PREST!**



[WWW.MONDRAGON.EDU/PREST](http://WWW.MONDRAGON.EDU/PREST)

**PREST**



**MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA**

# Eskura ezazu

## NOAUA!ren egutegia



2008

Batekin nahikoa ez eta beste egutegi baten beharra duzula? Oraindik ale sueltoak geratzen zaizkigu.

NOAUA!ko bazkideek doan jasoko dute beste ale bat. Bazkide ez direnek, 2€ ale bakoitza.

**Albistea iruditan !!**

# Martxan da Kultura Aholku Batzordea

**K**ultura Aholku Batzordea aurreko astean bildu zen lehen aldiz. Udal agintariekin batera, kultur talde-etako ordezkari ugari bildu ziren udalbatza plenoan egin zen bileran, 30 lagunetik gora.

Batzorde honen bitartez, udaletxearen eta elkarten arteko komunikazioa sustatu nahi da. Hala nola, kultur taldeen partaidetza eta koordinazioa bultzatzea du helburu.

Aurrerantzean, hilean behin bilduko da Kultura Aholku Batzordea, hilabetezko azken asteazkenean, arratsaldeko 19:00etan udaletxean. Beraz, otsailaren 27an egingo da batzorde honen bigarren bilera.



KULTUR TALDEEN ETA UDALETXEAREN ARTEKO BILGUNEAN  
 BILAKATUKO DA KULTURA AHOAKU BATZORDEA.

## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
 943 36 03 21 - [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) - [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurerako ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Publizitatea: Intza Salsamendi, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieto, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

HAU DA XOMORRO FESTA! \_\_\_\_\_ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ **6. OR.**

USURBILI BURUZKO DVDA \_\_\_\_\_ **8. OR.**

UDAL AURREKONTU PROPOSAMENA \_\_\_\_\_ **11. OR.**

KAKO BASERRIAREN ALDEKO EKIMENA \_\_\_\_\_ **14. OR.**

LURRALDE BUS, ORAIN MERKEAGO \_\_\_\_\_ **15. OR.**

OTSAILEAN, KZGUNEA GOIZEZ \_\_\_\_\_ **17. OR.**




Usurbilgo Udaia



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



UNAI AGIRRE

## Herritarrok dugun garrantzia

Aste gutxi dira Herrialde Katalanetan zehar bidaia egin genuela. Bai Zubieta zein Usurbilgo herri taldeen ordezkariak San Markoseko mankomunitateak gonbidatuak izan ginen, beste batzuen artean. Han ondare kultural zein arkitektoniko aipagarria dago, gurea baino klima goxoagoa, hondartzak, baina hori guztia ez zen gure interesekoa. Izan ere, gu zabor bila joan ginen. Niri, pertsonalki, zabor kudeaketari dagokionez unibertso berri bat ireki zitzaidan begi aurrean. Hemen asko birziklatzen omen dugu eta zaila omen da gehiago lortzea, hala esaten digute behintzat politikari zenbaitek. Zenbat birziklatuko dugu gure etxeetan, laurdena? Bada, ikusitakoak alde-rantziz jartzen ditu datuak. Laurdena inguru zen hainbat herrietan birziklatzen ez zutena, gelditzen zen erreusa. Ez dira herri bakan batzuk, ezta azken hilabeteetan jarritako plan pilotuak ere. 70 udalerrri inguru, 400.000 biztanle hartzen dituztenak dira, aspaldi ezarritako sistema-ekin (batzuk 8 urte daramatzate) eta edozein alderdi

politiko udal gobernuan egonda (CiU, PSC, ERC, independenteak etab.). Baina badute ezaugarri komuna; Guztiek Atez Ateko Bilketaren aldeko apustua egin dute. Eta hain zuzen ere, hor dugu gakoa. Konpostatu eta birziklatzen den zaborrak ez baitu ez zabortegei ez eta erraustegirik ere behar.

Bada garaia gai honekin Gipuzkoan ere arduraz jokatzeko. Herri eta hiri guztietan, alderdi politiko guztiek. Hau da eta etorkizuneko apustu bakarra.

Kataluniako esperientziak beste zerbaite ere erakutsi digu: Herritarrok gai honetan dugun garrantzia, gu izango baikara sistema ondo edo gaizki ateratzeko gakoa. Eta horretarako gurekin kontaktu beharko dute. Usurbilgo udalak ere ondo egingo luke herrian aurrera eramango dugun esperientzia zehazteko, antolatze eta azken finean martxan jartzeko herri mugimenduentzako partehartze sistemak antolatuko balitu. Asko dugu herritarrok esateko, eta gogoz gaude gainera. Izan gaitezen horretan ere eredu, zabor bilketan bezala!

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubada - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: Otsailak 15. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 11.

**LATAILLADE** **ITURGINTZA**

**GASA BEROKUNTZA MANTENIMENDUA ETA KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK**

Aritzitxo 8. behea - 943 363 348 - 609 888 021

**txirriStra**

KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466

**pinxoak**  
**ogitartekoak**  
**platek korbintuak**

**TABERNA**

### ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Askok dugu esateko. Baina zure laguntza ere premiakoa da.

### Bazkide egin zaitez!

Noaua!!

36 euro urte osorako

Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Telefonoa: \_\_\_\_\_  
 E-posta: \_\_\_\_\_  
 Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

# Hau da xomorro festa!

**X**omorroen gaia proposatu zuenak bete-beteen asmatu zuen, izan ere, joko asko ematen duen gaia da. Izan zen larunbateko Inauteri Jaian bestelako gairik landu zuenik ere. Batzuk eta besteak, kolorez jantzi zuten

larunbat arratsalde-gaua. Zoriontzekoa Hitz Aho guraso elkarteak goiz partean egin zuen ahalegina. Inauterietako irudi batzuk dituzue hemen, baina noaua.com webguneko "Argazkitegia", askoz gehiago aurkituko dituzue.



OSTIRALAREKIN ATERA ZIREN UDARREGI IKASTOLAKOAK KALEJIRAN. KIROLDEGIAN AMAITU ZEN FESTA.



ADIN ETA MAILA EZBERDINETAKO IKASLE ETA IRAKASLEEK HARTU ZUTEN PARTE OSTIRALEKO KALEJIRAN.



ERA GUZTIETAKO XOMORROAK IBILI ZIREN LARUNBATEAN; GOIZEAN, ARRATSEAN NAHIZ GAUEAN.



XOMORROEN GAIA ALDE BATERA UTZI ETA MEXIKARREZ ATERA ZEN KOADRILA HAU.



BESTE ERA BATEKOA IZAN ZEN PASA DEN LARUNBATEKO PARRANDA.

## Inauterietan, Santa Ageda



INAUTERIEK BETE-BETEAN HARRAPATU DUTE SANTA AGEDA BEZPERA BAINA EZ ZEN ERAGOZPENEA IZAN. ZUBIETAN ETA KAXKOAN BERDIN-BERDIN ENTZUN ZIREN SANTA AGEDAKO KOPLAK.

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

## Zinea



Urtarrilaren 25ean, Sutegin “Ogia eta Arrosak” filma ikusteko aukera izan genuen. Pelikula hau Ken Loach zuzendari britaniarrarena da, 2000. urtean egina. Gaia inmigrazioa da eta Estatu Batuetan kokatuta dago akzioa.

Pertsonaia nagusia neska gazte mexikar bat da. Ilegalki muga gainditu orduko konturatuko da etorkina izatea arriskutsua dela. Bere ahizparen etxera doa, bere senarra eta alabarekin bizi den etxera. Ahizpak garbitasun enpresa batean egiten du lan eta bertan lortzen dio lana berari. Beste pertsonaia nagusia sindikalistarena da. Honek ez du bertan lan egiten, baina ikusarazten die, etorkinak izan arren badituztela eskubideak ere eta haiengatik borrokatu behar dutela. Neska mexikarrak garbi ikusten du hori eta horretan saiatzen da, grebak antolatuz eta sindikalistari lagunduz. Baina ahizpa, hamazazpi urte bertan bizitzen daramana, ez dago batere ados, izan ere, beranduago ahizpari aitortzen dion moduan, hasieran prostituta bezala lan egin behar izan zuen, Mexikon gelditu zen familiartekoei dirua bidali nahi bazuen, eta aitortu zion ere ahizpentzako lana lortu zuela nagusiarekin oheratu zelako. Horrela



konturatzen da etorkina izatearen gogortasunaz. Azkenean poliziak kanporatu egiten du eta Mexikora itzultzen da.

Filme honekin Ken Loachek kontzientziak astindu nahi ditu eta azaldu, hiri industrializatuak ez direla onak gizakientzat, orain antolatuta dauden bezala behintzat. Azken finean denak behar dugu ogia bizirik irauteko, baina baita ere arrosak bizitzeko.

ATXEGALDE

MAIALEN UNANUE

## Tamainaren kontuak



Urruneko erreinu baten inon topa ezin zitezkeen arrosak aurki zitezkeen. Ederrak ziren oso, arantzatsuak bezainbeste. Baziren halako iratxo batzuk, txikiak, lore haien inguruan bizi zirenak. Ez zuten giza-kienganako beldurrik: beraiek libre eta zoriontsuak ziren, eta hori zen behar zuten

guztia.

Erreinuko erregea boteretsua zen, bai, ez zegoen inor bera baino indartsuagorik. Berak nahi zuen guztia lor zezakeen, nahi zuenean eta edozein modutara. Oraingo honetan, nahi zuena lore eta iratxoen mundu txiki hori zen.

Iratxoak bazekiten jaun tripa handi horrek ez zietela ezer onik ekarriko. Zoritzarrez, ordea, badakigu txikiak izatean zer gertatzen den: handiak txikiarekin beti nahi duena egiten amaitzen duela. Arrosen zati bakoitza banan banan usteltzen joan zen, aske zirenean eder izateko zituzten arrazoi guztiak non gelditu ote ziren ahaztuta.

Handitu eta kontuan hartzeko modukoak ez diren bitartean, txikiak direnei kasurik ez baitzaie egiten. Mundu globalizatuan handia ez bazara, txikia ere izan ez zaitzkeelako.

KALEZAR

MADDI GALBETE

## Nora goaz?

Telebistaren aurrean ikusi dut gaur Josu, kanpoko eguraldiaz babestu nahian, etxeko sofan eserita, asperturik. Kalera ateratzeko esan diot, lagunekin ibiliko zela gustorago, larunbat arratsalde batean. Aurpegia okertu du zer esaten ari nintzaion galdetuz bezala, eta ondoren argi esan dit: “eta nora joango gara?”

Egia esan, horrelako eguraldi traketsarekin leku askorik ez dago herrian babestu eta lagunekin egoteko modukorik. Pentsatzen jarri eta argi erabaki dut gaur nondik bideratu nire artikulua. Nire ustez, gazteleku bat behar da herrian, gaztetxoak biltzeko leku bat.

Jada 13-14 urteko gaztetxoek hartzen dituzte lokalak, eta gastu bat suposatzeaz gain, herriko gainontzeko gazteekiko komunikazioa ere galdu egiten da. Udako eguraldi onarekin ez dago leku bat izan beharrik, baina neguko eguraldi txarretatik babesteko ordea, beharrezkoa ikusten dut biltzeko leku bat. Gazteleku bat jarriko balitz bestelako ekintzak antolatzeaz gain, soilik arratsalde bat pasatzeko aukera izango lukete, beraien lagunekin egoteko eta herriko gainontzeko gaztetxoekin egoteko. Ez litzateke eraikin handirik behar, arduradun batzuk, besterik ez, urtean zehar ekintza desberdinak prestatzeko eta giroa apur bat zaintzeko. Ez dakit, irtenbide bat iruditzen zait Josu bezalako beste mila gazteentzat. Ez al zaiuzue iruditzen?



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

## Sagardo txarrik ba ote?



**B**erri haundirik ez du eman gure auzoak egun hauetan. Batetik Ibai-Ondo elkarteak duela egun batzuk, junta berria aukeratu du eta bazkide berriren bat ere izango da hemendik aurrera.

Bestetik Txotx garaia bizi dugula gure sagardotegian. Ez da harriztekoa izaten despistaturen bat topatzea: “Kaixo Aialde Berri sagardotegia?”; “Bai horixe da, horko etxe hori”; “Eskerrik asko”.

Aurten ere sagardo ona omen dator eta lasai, datorren urtekoa ere ona izango da, baita hurrengo ere, ze urtero gauza bera esaten digute sagardogileek behintzat. Egia esateko neronek dastatutako sagardoak behintzat, oso itxura onekoak iruditu zaizkit, ea ze martxa hartzen duten.

Gero hor badira, Santu-Enea elkarteak (nola ez) presatzen ari diren zenbait ekintza baina ez daude oraindik baieztaturik. Eta bukatzeko Inauteriei buruz zerbait kontatuko dizuet. Nik uste dut festa hauek oso terapeutikoak direla, hori beti iruditu zait. Eskape ezin hobea da mozorro batekin joatea. Nik lagun asko ikusi ditut bene-



tan transformazio hori benetan bizitzen dutenak. Eta mozorroak aukeratzeko? Neri beti emakume itxura jartzea gustatu zait. Horrek ere izango du bere arrazoia, baina ez naiz terreno horietan sartuko, idazteko tokirik ez daukat eta...

AGINAGA

M<sup>o</sup>ANGELES ARRUTI

## Azken momentuko mozorroa



**H**au da hau martxa dabilkiguna. Zein hazkar pasa zaigun urtea, nahi baino lehenago zahartzen ari gara. Urtea bukatu berri dugu, bestea hasi eta dagoeneko Inauteriak ere ospatu ditugu.

Egun hauetan armairuko hautsak ere harrotu ditugu zertaz mozorrotu asmatu ezinik eta azken orduan arropa zaharrak bilatu ezinik. Niretzat mozorrotzeak badu halako magia, eguneroko errutina ahaztarazten digu, eta amets batean bezala ibiltzen gara umorez beteta eta inori huts egin gabe. Mejikanoz, soldaduz, tenderetez, ijitoz, monjaz, sorginez, Edurne Zuriz, amonaz, medikuz eta gogoratzen ez naizen batzuz mozorrotu izan naiz. Hori bai, azken momentukoak izan badira ere, denak etxean egindakoak eta aparteko grazia jarriz.



Gure inguruan Tolosako Inauteriak izaten dira jendetsuenak eta ospetsuenak. Ederra izaten da hango umorea dastatzea eta nola ez partehartzea ere. Aurten ere ikusi izan ditut herri-tar zenbait bertako festa giroaz gozaten eta nola ez, Usurbilgo Tolosarrak ere bai.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

## Hotza eta euria

**H**otz eta euriekin jendea ezkutatu egiten da bere oskoletan, ume txikiak salbu -ez baitute ikasi jolasean besterik-. Horien gurasoak dira frontoi ondoko plaza uzten azkenak: ondar errainua zurrupatu arte ez dute alde egingo, noski. Kostata eta nekez hartzen dute etxeko bidea.

Plaza hutsik, zuhaitzik ez, eta frontoi paretako pankarta handi hura ere -errausketarik ez- eroria da, hostoen antzera.

Frontoiak gordetzen du, txingarrak bezala, epeltasun apurra umeen xestoko partiduetan. Lau jokoan eta hiru guraso begira -gogortuko zaizkie berriro soin enbor eta adarrak-arratsaldeko iluntasunetik ihes egin nahian. Tarteka tabernara hurbiltzen da baten bat, eta hala ere plazan ez da ezer entzuten alde hartatik. Kanpandorreko erlojua mutu, zazpi eta erdiak. Farolek argia mottel.

Euria hasi du. Taberna barrura egiten du espaloian zegoen lagunak. Handik entzungo ditu euri zaldizkoen tarrapata eta haize boladak. Tabernako telebistan eguraldi gazteak dio are bortitzago ariko duela hurrengo egunetan. Entzuleari gogoia ihesi joango zaio etxeko babesera. Edo beharbada ez. Beharbada hegaldutako zaio urruti-urruti joateko, beste eguraldi bat egiten duen lurraldera. Negua da eta Olatz urrun dago.



# Atzoko Usurbil eta usurbildarrak bildu dira salgai jarriko den DVD batean

**U**surbilgo iraganeko une asko argazkietan erretratuak gelditu dira. Baita 70.hamarkada hasieran herrian bertan grabatu zen bideo batean ere. Nafartarrak kultur taldeak bilduma osatu eta DVD bidez proiektatu zuen iaz Sutegin. Izan zuen harrera ikusita, emanaldia datorren otsailaren 15ean errepikatu eta egindako lana salgai jarriko dute.

Herriko dantzariak, txistulariak, jaietako uneak, lagun koadrilak, sendiak, pasarte historikoak, garai bateko Usurbil eta usurbildarrak... argazkietan, musikak lagunduta. Eta pasa den urtera arte ikusi ez zen bideo bat. Iaz eskaini zuten lehen aldiz, eta izan zuen harrera ikusita, berriro proiektatuko da Sutegin, Nafartarrak kultur taldekoek egin duten Usurbil buruzko DVDa. "Gure asmoa ondare historikoa zabaltzea da", adierazi du Nafartarrak kultur taldeko kide Jexux Agirresarobek.

## PASARTE HISTORIKOAK

"Nafartarrak taldeak  
otsailaren 15ean eskainiko  
du DVDa Sutegin"

Herriko iragana, historia hainbat pasarteaz osatua dago. Horietako batzuk gogora ekarriko dituzte. Harrespilena adibidez. "Pirinioetatik hasita, azkenekoak hemen daude", gogoratzen du Agirresarobek.

Bi pertsonaiek herriarekin modu batean edo bestean izan zuten lotura ere aipatuko da. Santa Kruzeko apaiaren ihesaldia edota Bilintxi bonbardaketa batek Arratzainen harrapatu eta heriotz-zauria egin zioneko.



OTSAILAREN 15EAN SUTEGIN ESKAINIKO DUTE IKUSENTZUNEZKOA. EGUN HORRETAN SALGAI JARRIKO DUTE DVDA, 5 EUROREN TRUKE.

Gaur egun herriko bi eraikin ezagunen izenek atzean duten historiari buruz ere azalpenak eskainiko dizkigu DVDak; Udarregi eta Atxega sendiari buruzkoak hain zuzen.

### 600. urtemugako bideoa

Herri izaera "ofiziala" eskuratu zutenetik seihungarren urtemuga bete zuten Usurbilek 1971n. Bertsolaritza munduan ospe handia duten hiru txapeldun izan ziren Kale Zaharren eta baita, Udaleko balkoitik, ondoen egiten zekiten horretan; bertsotan noski. Udal ordezkariak bildu zituen meza saioa izan zen eta baita herriko dantzariak lagundutako kalejira ere.

Horrelako ospakizunak bideoz grabatzea gaur egun ohikoa da erabat.

Ez zen hainbeste, 70.hamarkada hasieran.

Horregatik balio handiagoa du, orain 30 urtetik gora grabatutakoa erakustek. Otsailaren 15ean berriz ikusgai izango da.

### DVDA otsailaren 15ean jarriko dute salgai

Emanaldi egunean bertan, otsailaren 15ean Sutegin bertan salgai jarriko dute DVDA, 5 euroren truke. Egun horretatik aurrera erosgai jartzeko asmoa dute herriko zenbait saltokitan. Aurrerago emango dute zehaztasun gehiagoren berri.





## Kutxako Kontseilu Nagusian ordezkari izango du Udalak

U surbilgo interesen alde egiteko aukera gisa aurkeztu zuen EAE-ANVk urtarrilaren 26ko plenoan, Kutxako Kontseilu Nagusian ordezkari izateko proposamena. Gaiak zatiketa eragin zuen alderdien artean. EAE-ANVko zinegotziek aurkeztutako proposamenarekin bat egin zuten, EAJ-PNVk eta EAK aurka bozkatu zuten eta PSE eta Aralarreko zinegotziak abstenitu ziren. Beraz, gehiengoz onartu zen. Aipatu ordezkari izateko gauzatzeko, Usurbil, Lezo, Oiartzun eta Bergarako



KUTXAKO EGOITZA NAGUSIA, DONOSTIA.

udalek bat eginda elkarte bat osatzeko asmoa dute.

## Etxebizitza zozketarako zerrenden alegazioei buruzko argibideak

Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketari begira, azken asteetan behin behineko zerrendak kaleratu dira. Horrekin batera, alegazioetarako hamar eguneko tartea zabaldu zen. Zerrendatan agertzen ziren eskatzaile bakoitzari ere, gutun bidez jakinarazpena bidali zaio. Kasu horretan, urtarrilaren 26ko plenoan udal idazkariak argitu zuenez, jakinarazpena etxean jasota eskatzaileak hamar eguneko tartea du alegazioaren bat aurkezteko. Horregatik, oraindik zenbait herritarren alegazio posibleen



ERREKLAMAZIO GUZTIAK AZTERTU ETA ERANTZUNA BIDALI BEHAR DIE UDALAK.

zain zirela adierazi zuten. Alegazio guztiak jasota, hurrengo pausoa, herritarrek aurkeztutako erreklamazioak erantzuten hastea izango da.

## Tortura kasuak salatzeke mozioa, aurrera

Urtarrila hasieran Guardia Zibilak atxilotu zituen Igor Portuk eta Mattin Sarasolak jasandako eta azken urte luzeetan pilotutako tratu txar kasuak salatu asmoz, mozioa aurkeztu zuen EAE-ANVk. Ekintza horietan ardura dutenak salatu, eta tortura desagerrarazteko jarrera argia eta beharrezko neurriak hartzea eskatzen zaie alor ezberdinetako eragileei. Tortura helburu politikoekin erabiltzen dela salatzen da mozioan. Espainiar polizia indarrek eta

justizia aparatuek Euskal Herrian inolako zilegitasunik ez dutela gogoratzearekin batera, Auzitegi Nazionala desagertzera edota inkomunikazio egoeren amaiera eskatzen da.

Aurkeztutako testuak Torturaren Aurkako Taldeak torturarekin bukatu asmoz aurkeztu duen bederatzi puntuko zerrendarekin bat egiten du. Marko demokratiko baten beharra azpimarratzen da, torturarekin behin betiko bukatzeko.

## Hezkuntza

### Batzordean aldaketak

Nerea Erauntzetamurgil eta Xabier Mikel Errekondo izan dira orain arte, Hezkuntza Batzordeko tituluarrak. Ordezkoak berriz, Juanjo Olaizola eta Ainara Uribe. EAE-ANV-tik kide trukaketa proposatu berri dute; Errekondo ordezkari izatea eta Olaizola titularra.

## Udal langileen

### plantilla eta lanpostuen zerrenda

Legediaren arabera, urtero udal aurrekontuekin batera onartu behar dira lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoa. Pertsonal Batzordean landu da gaia eta hainbat zuzenketa egin dituzte. EAE-ANVtik udal lanetarako barne baliabideak izatearen aldeko apustua egiten dute.

Azpimarratzekoak dira honenbestez, Emakumeen berdintasunetarako, Pertsonal eta Kontratazioetarako edota Nekazal eta Ingurumen gaietarako teknikari lanpostu berriak sortu izana. Baita arkitekto postu berri bat erantsi ere. Erabakitakoa hamabost eguneko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Tarte horretan erreklamazioerik ez bada, behin betiko onartuta geldituko da.

Bestetik, hainbat udal langilek eskatutako ordainsari osagarrien igoera atzera bota du udalbatzak.

Hemeretzi udal langilek haien ordainsari osagarriak berraztertzea eskatu berri dute. Zehazkiago esanda, %1eko igoera galdegin dute. PSE abstenitu zen, baina gainerakoek bidezkotzat jotzen ez zutela eta, aho batez eskaria onartzearen aurka agertu ziren.

## Aurrera egin du 2008ko udal aurrekontu proposamenak

**L**egegintzaldi berriko lehen udal aurrekontuak hasieraz onartu ziren pasa den urtarrilaren 29an izan zen ohiko osoko bilkuran. Proposamenak EAE-ANVren aldeko sei bozka jaso zituen, PSE-EE-ko zinegotzia abstenitu egin zen eta EAJ-PNVk, EAK eta Aralarrek aurka bozkatu zuten.

Prozesu ireki baten emaitza gisa aurkeztu zituen EAE-ANVk 2008rako udal aurrekontuak. Taldearen lehentasunak eta herritar, elkarte edota alderdiek egindako ekarpenekin osatutakoak direla gogorazi zuen Xabier Mikel Errekondok. Horren adibide gisa gogora ekarri zituzten azaroan herritarren ekarpenak biltzeko ospatutako herri batzarra edota batzordeetan gaia landu, eztabaidatu eta aipatu bezala, ekarpenak jasotzeko izan den aukera eta denbora.

### Aurrekontuen kronologia

Hasieraz onartuta, orain hamabost eguneko alegazio epea zabalduko da. Alegaziorik balego, Ogasun Batzordeak aztertu beharko lituzke. Bestela, plenoak behin betiko onartzea litzateke eman beharreko azken pausoa. EAE-ANVko ordezkariak argi utzi bezala, pasa den urtarrilaren 29an aurkeztutako aurrekontuak jorratutako ibilbide baten emaitza

dira. Hona hemen, prozesu horretako zenbait data esanguratsu:

Uda amaieratik: udal teknikari eta arduradunek arloz arlo prestatutako ekarpenen bilketa.

07/10/3: Kirol Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak bere aurrekontua onartu zuen.

07/11/29: Herri batzarra egin zen Sutegin, herritarren edota elkarten ekarpenak biltzeko.

07/12/10eko Ogasun Batzordean, aurrekontu proiektuari ekarpenak egiteko jarraitu beharreko egutegia zehaztu zen, inoren aurkako iritzirik gabe.

07/12/10-08/01/04: Talde politikoen-tzat ekarpenak egiteko aukera zabaldu zen.



URTARRILAREN 26KO UDALBATZA  
PLENOA.

08/1/14: Lehenagotik egindako hainbat bileren ostean, aurtengo udal aurrekontuak diktaminatu ziren Hazienda Batzordean.

08/1/29: Aurtengo udal aurrekontuak pleno saioan, hasieraz onartu ziren.

### EAK 55 emendakin aurkeztu zituen

**E**AE-ANVren aurrekontuak bozkatu behar ziren bezperatan aurkeztu zituen EAK 55 emendakin partzial. Haienak eztabaidatu eta bozkatzera eskatu zuten, baina horretarako aukerarik ez zen izan. EAKo ordezkari Luisuari Ormaetxeak ezustetzat eta totalitarismo arikeratzen jo zuen aukera hori eman ez izana. Erabakiak beselako ondorioz ere eragin zuen. Eztabaidatzeko aukerarik ez emateaga-

tik, Aralarrek udal aurrekontuen aurka bozkatzera hain zuten.

EAE-ANVtik gogorarazten zenez, aurrekontu hauek onartzeko prozesua luzea izan da. Besteak beste, herri batzar deialdi irekiak izan dira, eta batzordeetan udal ordezkariak parte hartu, eztabaidatu eta ekarpenak egiteko aukera izan dute. Batzordeak pleno bezain irekiak direla gogorazi zuen Xabier Mikel Errekondok.

### Begienez ikusi du aurrekontua PSE-EEK

**A**urrekontuak bere osotasunean onartzeko modukoak izan daitezkeen arren, diru partida batzuk asumitu ezinak dira talde sozialistarentzat. Amaya



Goyaranek igorri digun balorazioaren arabera, udal ondarea izango den lur erosketa planteatzearen aldekoa da. Azken lau urteotan aldarrikatu duena 2008ko udal aurrekontu proposamenean jaso delako pozik dago zinegotzi sozialista.

Baina ez dago ados elkarte eta taldeei zuzendutako laguntzekin, "ez daude ondo izendatuta eta diru publikoaren gastua bikoiztea dakar", dio Goyaranek.

Urruti dauden presoan senideentzako

diru partidarekin ez dago ados. Senideren bat urruti eta premian diren familiei laguntzearen alde dago, baina ez zaio etikoa iruditzen aurrekontuetan bakea, askatasuna eta giza eskubideen aldeko heziketa programarik jaso ez denean.

PSE-EErentzat onartezina da urteroko udal aurrekontuetan ikastolaren aldeko diru partida garrantzitsuak aurreikustea, "Usurbilgo herritarrek inguruko herrietan ordaintzen dutenaren bikoizta ordaindu behar dutenean heziketa arloan". Sare publikoari lotutako plazan alde azaldu da eta bestela Eusko Jaurlaritzak asumitu dezala Udalak egiten duen ahalegin ekonomiko.

Baina aurrekontu hauek alde positibo-

ak ere badituzte PSE-EE alderdiarentzat. Ezkertiar ikuspegitik egindako aurrekontua dela eta alderdi sozialistarentzat asu-migarria.

Ez da jasoko dena baino gehiago gastatuko, ez du Udaletxea hipotekatzen eta udalak duen zorraren gutxitzea ekarriko du.

Emakumearen integrazioa, berdintasuna eta genero biolentziari aurre egiteko partidarekin ere bat dator. Usurbilen ere genero biolentzia kasuak daudela eta horri aurre egiteko ahalegina egin behar dela eta, herritarrek hezte beharrezkoa dela dio Amaya Goyaran zinegotzi sozialistak, gaztekeraz igorri eta erredakzioan egokitu dugun balorazioan.

## Iñaki Illarramendi, EAJ-PNV: "Gure kezka azaldu nahi dugu"

Urtarrilaren 29an udal osoko bilkura garrantzitsua ospatu zen. Bilkura luzea eta sakona espero genuen, legegaldiko lehen aurrekontuak zirelako eta oposizioak hainbat emendakin partzial aurkeztu zituelako. Gobernuan dagoen ANV alderdiak bere gobernatzeko era, guztien aurrean erakusteko aukera ezin hobea izan zuen. Gai zerrendaren arabera, aurrekontuetaz hitz egiteko momentua iritsi zenean, alkateak unilateralki, emendakinak ez eztabaidatzea erabaki zuen, Komisioetan aurrekontuez hitz egiteko nahikoa denbora izan dugula argudiatuz. Gogoratu beharrik ez dago, osoko bilkura, Udalak duen erabakitze organu garrantzitsuen delako, bertan herriak aukeratutako ordezkari guztiak egon ohi direla. Aurrekontuen aurrean, oposizioan gauden EA, Aralar, eta EAJ-PNVek aurkako botoa eman genuen eta PSOE abstentitu egin zen.



publikoki salatu nahi dugu. Ez da nahiko demokrazia eta elkarrizketa hitzez aldarrikatzea, hauek praktikan jartzea beharrezkoa da zerbaiterako balioko badute hitz polit hauek. Errazagoa da esatea, egitea baino.

Udala osatzen dugun alderdi guztien eskubidea da legeak onartzen duen edozein momentutan emendakinak aurkeztu ahal izatea. Honelako jarreraren aurrean gure protesta eta nola ez kezka azaldu nahi dugu.

ANV alderdia egoera hau zuzentzera gonbidatzen dugu, herriaren onerako izango baita.

Aurrekontuan urteroko gastu finkoak daude eta KPlaren igoerataz ezik, ez dago zer esan handirik. Inbertsioei buruz bi gai azpimarratuko genituzke, lur sailen erosketa eta zaborren tratamendua. Ez da informazio gehiegirik eman bi gai hauek. Non erosiko dira lurrak? Nola? eta zertarako?

Zein irtenbide emango zaie zaborrei? Zubietan egin nahi duten konpostaje planta nolakoa izango da? Zein inpaktu sortuko du ingurunean? Bertako bizila-

gunei sortuko dizkien eragozpenak kontutan izan dira? Bizilagunak jakinaren gainean jarri dira? Hainbat erabaki inguruko beste herriei batera hartu beharrezkoak direla iruditzen zaigu, eta ez bakarka eta kontsentsurik gabe. Bestalde badira beste gai batzuek kontutan hartu ez direnak eta kontutan hartzeko modukoak direla iruditzen zaizkigunak.

Troia eta Santuenerako bidean dauden tren pasabideak saihestea goi pasabideen bitartez.

Sarrera hobetzeko asmoarekin Donostiatik datorren errepidetik Usurbileko sarrera nagusian dagoen egoera txarreko zubiaren eraisketa.

Hain egoera txarrean dagoen musika eskolako eraikinari irtenbide bat ematea.

Ugalde eta Txokaldeko sarrerei irtenbide bat ematea.

Kiroldegiko berrikuntza.

Udaltzain zerbitzua igande eta jai egunetan berriro ezartzea, 24 orduko zerbitzura iristeko helburu izanik.

Hori guztia aurrerantzean etorriko diren aurrekontuetan tratatzeko gaiak izatea espero dugu.

## Lontxo Zubiria, Aralar: emendakin denak eztabaidatzearen alde

EAE-ANV abenduan aurrekontuen proposamena Udalan aurkeztu ondoren, Aralarren ekarpenak eta eskaerak aurkezteko asmoarekin urtarrilaren hasieran bildu ginen EA Erenkin.



Hona Aralarrek eskatuta edo Udalak berak aurkeztuta aztertu genituen puntu garrantzitsuenak:

- Ikastolak espazio falta duenez beharrezkoa izan daiteke eraikin berri bat egitea, oraingoz hezkuntza proiektu berrientzako partida aurreikusitako dute. Haur-eskolak izango duen etorkizuna hezkuntza-mahaiari aztertzen ari da.

- Kalezarreko auzoarentzako ekipamendua. Esan zaigu aurreko legengintzalditik datozen asmoak aurrera ateratzen saiatuko direla.

- Kulturgintzan herriko elkarten asmoerarako laguntzen partida igo dute. Kultura batzordean laguntzak banatzeko irizpideetan gure ekarpenak egiten saiatu gara, batez ere taldeek eskatzen duten diruaren zati handiagoa jasotzeko aukera eman dadin.

- Gazteentzako ludoteka.

- Bidegorri eta oinezbideak egiteko plan

orokorra (EAEren proposamenean zenbait zati egiten haseta jasota zegoen).

- Zinea bultzatzeko partida jarri da eta zine-klubarena oraingoz kendu.

- Zaborrak atez ate biltzeko plan bat aurkeztuko dute aurrean eta konpostagune berri baterako partida jasotzen da.

- Santixabeletan azkeneko urteetan gastuek izan duten gehiegizko igoerari bukaera eman eta arrazoizko aurrekontua jarri dute.

- Potxoeneari kulturarekin lotutako irtenbide bat eman nahi zaio.

- Emakume edo generoaren arloa landuko da. Teknikari bat hasiko omen da lanaldi erdiz.

- Aginagako Antxomolantxa elkarteak Tapiak eskultura bat egiteko proiektua aurkeztu du Udalan eta horretarako partida sartzea eskatu dugu baina ez dute horrela jasotzen.

- Musika taldeentzako entsegu-aretoak Atallu industrialdean kokatzea eskatu genuen baina esan zaigunez Haraneko aldagelen ondoan jarriko dira.

- Udarregi ikastolaren teilatua konpontzerakoan, eguzki-panelak jartzea eskatu dugu.

- Santueneako bidean trenbidearen gainetik pasako den zubia egitea eskatu genuen.

Erantzun zigitenez Eusko Trenbidearen asmoak ondo ezagutu ondoren pentsatuko dute zer egin.

- Artzabalen "Nazioarteko solidaritatearen gunea" sortzea proposatu dugu. Gai honi lotutako informazioa jarriko litzateke panel iraunkor batzutan.

- Musika Eskola berria: gai hau aipatu genien baina aurrerago zehaztuko omen dute.

Urtarrilaren 14ko Ogasun Batzordean EA alderdiak osoko zuzenketa aurkeztu zuen baina ez zen onartu. Urtarrilaren 25ean pleno dokumentazioa banatu zitzaigunean EA alderdiak egun berean aurkeztutako emendakin partzialak banatu ziren. Urtarrilaren 29ko plenoan EAE-ANV ez zuen onartu emendakin horiek aztertzea. Urtarrilaren 14rako aurkezteko izango zen bidezkoena eta ez plenorako 4 egun bakarrik falta zirenean. Baina hala ere, geure iritziz emendakin hauek ere eztabaidatzeko aukera izan behar dute, ekarpen guztiak aurrekontuak hobetzeko egokiak izan daitezkeelako. Aralarrek abstentitu egin behar zuen baina, eztabaidarako aukera ez ematearen jarrerarekin ados ez geundenez, kontrako botoa eman genuen.

## Luismari Ormaetxea, EA: "Totalitarismo ariketa hutsa izan da"

Aurtengo aurrekontu onarpen prozesua Xabier Mikel Errekondo Alkatearen totalitarismo ariketa hutsa izan da, jauntxokeri feudala gaurkotta, "rodilloa" pasatze basatia.



Aurrekontu zirriborroaren aurkezpena abenduaren 10ean egin zen. 25 dokumentu xortek osatzen dute udal aurrekontua. Egun hartan 3 banatu zitzaizkigun, garrantzitsuenak: alkatearen memoria eta kontuhartzailearen txostena (aurreko urtetan hainbat eragozpen sortu zituen eta aurrekontuaren onarpena atzeratzea probokatu zuena) ez ziren banatu.

Urtarrilaren 4ra arteko epea eman zitzaizgun ekarpenak egiteko eta hurrengo Ogasun Batzordea urtarrilaren 14an izango zela hauek eztabaidatzeko adierazi zitzaigun.

Epe honetan guztian beste alderdi batzuekin elkartu eta hitz egin duten bitartean Udal Gobernuak ez du gurekin ezer jakin nahi izan. Hau dela-eta, eta genituen dokumentu apurren arabera aurrekontuan ikusten genituen akats eta gabezien aurrean osotasuneko zuzenketa aurkeztu

genion idatziz aurrekontuari.

Urtarrilaren 14ko bileran dokumentazio gehiena banatu zitzaigun (ez nagusietako bat, kontuhartzailearen txostena), baina ez zitzaigun denbora eskaintzen informazio hori guztia aztertzeke eta ekarpen berriak egiteko. Bileran bertan bozkatu zen aurrekontuaren onarpena (kontuhartzailearen legezko txostenik gabe) ANVren aldeko botoekin eta EAren aurkako botoarekin.

Gauzak horrela, gure ekarpenak plenean aurkeztea erabaki genuen. 55 enmienda partzial prestatu ditugu zeren aurrekontu hauetan ez da aurreikusten, adibidez: Artzabal egoitzako altzariak eta ekipamendua, edota 2 udaltzain kontratatzea, Santuenerako pasabide berria, Ikastolako teilatua tajuz konpontzea, Udaletxe ondolan eta Atxegalden aparkaleku soterratuak, Iartza eremu urbanoaren urbanizazioa, Eguneko zentroa bikoiztea, Munalurra kalearen urbanizazioa, Kalejarreko eraikin soziokulturala eta musika eskola berria eta ludoteka. Denak egingarriak!

Amaitzeko adierazi behin behineko izaeraz onartu den aurrekontu horrek ez

duela garantizatzen babes ofizialeko etxeren zozketa. Alkatea gezurretan dabil zozketaren epeak adierazten dituenean. Ezinezkoa da. Udala da Olarriondo eta Ugartondo eremuetan egin behar diren etxeren promotorea, garapen urbano horien abiadura Udalaren eskuetan dago. Orain arte ez dute ezer egin eta aurrekontu honekin ez dute dirurik jartzen sustatze lan hori egiteko. Udala, Olarriondo eremuko jabeetako bat da baina aurrekontuetan ez da aurreikusten diru partidari eremu hori garatu ahal izateko ordaindu behar dituen gastuak ordaintzeko: proiektu ezberdinak, urbanizazioa, etxe sozialen proiektua, etabar. Ugartondoko babes ofizialeko etxebizitzek Eusko Jaurlaritzako kalifikazioa lortu dezaten ezinbestekoa da Pikaola eremua (udala %60aren jabe dena) garatzea: proiektuak, urbanizazioa...eta ez du zentimorik ere aurreikusten. Beraz, Alkatea faltsukeritan dabil, ez ditu etxe horiek eginak ikusi nahi, ez behintzat aurten hasita, aurrekontu hauek ez dira babes ofizialeko etxebizitzak zozkatzeko. Guri elektoralismotzat akusatatu gintuzten, eta ANV, zertan dabil?

## X.M. Errekondo, EAE-ANV: "Herritarron beharrak txertatzen saiatu gara"

2008an osoki edo zati bat garatuko diren proiektuak jasotzea dute helburu aurrekontuek. Bestalde, garrantzitsua da argitzea urtean zehar sor daitezkeen beharretara molda daitezkeela aurrekontua. Horrela, ezker ikuspegitik 2008rako aurrakusi ditugun herritarron beharrak txertatzen saiatu gara.



Aurrekontuekin batera lau lanpostu berri jasotzen dira: arkitektu lanpostua; Barne antolamendurako teknikaria; Nekazaritza eta Ingurumenerako teknikaria, sail honetan apustu garbia egin nahi dugu; eta, emakume alorreko teknikaria, Usurbilen ere aukera berdintasuna bermatu beharra dago, jazarpenaren aurka neurriak hartu, asistentzia, etab. Ahalegin berezia egin beharra dago esparru horretan.

Etxebizitza babestuak %5era, euskararen %2ra, nazioarteko elkartasunean %1era iritsi nahi genuke. Bestalde, beste 45 etxebizitza sozialen eskaintza martxan jarri nahi dugu. Zaborren kudeaketan atez ateko bilketa eta konpostagunea martxan jarriko ditugu. Horrek, usurbildarron konpromisoa eskatzen du eta, ziur gaude

herritarrok erantzungo dugula. Bide gorri eta oinez-bideei garrantzia handia daukate; Zubietan eta Aginagan egingo dira aurten. Energiaren alorrean, Lanbide Eskolarekin batera, kale argiterian eta udal eraikinetan kontsumo eta kutsadura mailak jaitsiko dira. Kulturean, Potxoenea kultur dinamika bultzatzeko gune bilakatzen hasiko gara; Aholku Batzarra martxan da jada. Haur Hezkuntzari irtenbidea eman-go diogu guztion artean lanean ari den Hezkuntza Mahaitik. Hezkuntza proiektu berriak jasotzen dituen diru-partida berezia izendatu dugu aurrekontuan.

EAJren jarrera ez dugu asko ulertzen, batzordean isilik egon ziren. Aldaketarik edo bestelako lehenasunik ez zuten planteatu. Eta plenoari ematen diote identitate hori. Gure ustez, nolabaiteko jarrera bat agertze aldera bakarrik.

EAK bere bidean jarraitzen duela esan behar dugu, oztopatzen saiatzen da. Ekarpenak egiteko tartean, osoko zuzenketak aurkeztu zituzten, baina bozketan Ogasun Batzordeak atzera bota zituen. Pleno bezperan, ez osoko 55 aldaketa partzial planteatzen dituzte.

PSEren aldetik egiten dugun balorazioa,

gustatu zaigu. Onartzen baitu ezkerretik egindako aurrekontuak direla, aspaldiko partez udal honetan. Eta jasotzen ari direla berak defendatutako hainbat ildo.

Benetan, harrigarria Aralarren aurkako bozka izan da. Gure ustez, analisi oker baten ondorioz hartutako erabakia. Haien esanetan, EAren ekarpenak eztabaidatzeko aukera eman behar zen. Guk inondik inora ez dugu arazorik ekarpen horiek eztabaidatzeko. Baina moduak adostu eta horiek bete behar dira. EAren helburua, oztopatzea eta aurrekontuak mahai gainean uztea izan da. Aralarrek atzera buelta egitea, ulergaitza egiten zaigu EAren helburuaz jakitun baitzen. Gainera, ekarpen horiek aztertzeke aukera bada oraindik, izan ere behin-behineko onarpena eman baitzaie oraindik. Orain, aurrekontu proiektuak bere bidea jarraituko dute: jendaurrean jarri eta alegazioak aurkezteko hamabost egun egongo dira. Jasotakoa, gero Ogasun Batzordeak aztertuko du. Horregatik iruditzen zaigu, EAren jokoan erori direla, beraien ekarpenak jasota dauzkan aurrekontu proiektuaren aurka bozkatu dutenean. Ez genuen espero inondik inora.

## Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldietan ateratako dirua Kako baserriko laborarientzat izango da

**Z**uberoako laborariak albiste izan dira egun hauetan. Duela bi aste Kako baserriaren alde egindako elkarretaratze batean, istiluak izan ziren laborarien eta jendarmeen artean. Horren ondorioz, sei lagun atxilotu zituzten. Indarkeria baliatzea leporatu die prokuradoreak guztiei, eta jendarmeei borrak eta eskuburdinak kentzea biri. Otsailaren 21ean epaiketa egin bitartean libre utzi dituzte sei laborariak. Elkartasun keinu asko jaso dituzte azken egunotan, tartean, Usurbilgo Argiaren Lagunak taldearena.

Urtarrilaren 17an, laborari talde batek Ainharbeko (Zuberoa) Kako baserriko maizterren aldeko elkarretaratzea egin zuen. Baserria erosi nahi zuten maizterrok, baina beste batzuek diru gehiago eskaini zuten epez kanpo, eta azken horien alde agertu zen Safer erakundea, laborari lurren segida nori eman erabakitzen duen erakundea. Urtarrilaren 17ko elkarretaratze horretan, istiluak gertatu ziren laborarien eta jendarmeen artean eta bi jendarme zaurituak izan ziren. Horrez gain, jendarmeei salatu zuten "irain arrazistak" entzun zituztela.

Urtarrilaren 22an, ordea, Nicolas Sarkozy "terrorista" eta "arrazista" deitu zien Kako baserriko laborariei, eta ETaren aurkako neurri gogorak iragarri zituen. Beste behin ere, gauzak nahastu eta laborari afera zen kontu batek kutsu politikoa hartu zuen. Horren harira, Urtarrilaren 30ean, laborariak atxilotzeko agindua eman zuten. Biharamunean, libre utzi zituzten baina otsailaren 21ean epaituko dituzte.

IMANOL UBEDA



ABENDUAN IZAN ZIREN AZKENEKOZ USURBILEN PIRRITX ETA PORROTX. IRUDIAN DIRA ANTOLATZAILEEKIN BATERA, ARGIAREN LAGUNAK TALDEKO KIDEEKIN ALEGIA.

### "Kako etxaldearen lurrak erosteko"

Irudian dira Pirritx eta Porrotx pailazoak eta Argiaren Lagunak taldeko kideak. NOAUA!ra igorri diguten oharrean adierazi dutenez, azken bi urteotan pailazoaren saioetan jasotako etekinak Kako baserriko laborariei helarazi zaizkie: "Ipar Euskal Herrian antolatuta dagoen GFAM Lurra erakundearen esku jarri dugu 2006 eta 2007ko Pirritx eta Porrotxen emanaldietatik ateratako soberakin guztia, Kaka etxaldearen lurrak erosten baliatu dezan. GFAM Lurra 1979an sortu zen iparraldean, eta bere helburua lurrak kolektiboki erostea da, alokairu baten truk laborariei bertan bizi eta lan egiteko aukera eskaini. Erakundea sortu zenetik, 12 etxalde erosiak dituzte 1700 pertsonen

elkartasunari esker.

Zuberoako etorkizunari begira guztiz premiazkoa da, bertan lan eta bizitzeko aukerak eta proiektuak bultzatzea. Apostu horren alde gehien burukatzen ari direnak bertako laborariak dira, ELB laborari sindikatuaren laguntza handiari esker. Konpromisu horrekin bat eginez erabaki dugu gure esku dagoen laguntza diru hau beraien esku jartztea. Helburu txikien kateatzeak ahalbidetzen baitu, erronka handiagoak lortzea. Halako apustuak badira Ipar Euskal Herrian, eta ez dira ezagutuak mugaz honuntza, sarritan, hemengo ikuspegitik "bataila txikiak" direla uste izaten baitugu, baina Zuberoa bezalako herrialde batentzat estrategikoak dira".

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**

**Obaba kalea 29 · ASTEASU**  
© 943 69 68 52 · 620 800 186

**J.ORBEGOZO**

ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 · 659602789

# Aurrerantzean, autobusa merkeago

**L**urraldebus zerbitzua erabil-tzen dutenentzat bidaiatzea dezente merkeagoa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu berri duen erabakia medio. Lurraldebuseko garraio bideetan ibiltzen direnek %40 merkeago izango dute bidaia bakoitza, hilean 40 bidaiara arte; 41 bidaiatik 70 bidaiara, berriz, beherapena %70ekoa izango da; eta 71 bidaiatik gora, beherapena %90ekoa izango da (bidaia bakoitza 0,11 euro).

## Lurraldebus txartela

Beharpenez baliatzeko, Lurraldebus txartela atera beharra dago. Prentsa saltokietan eta eraikin publiko batzuetan ematen dute txartela eta zenbait paper aurkeztu behar dira: eskaera inprimakia sinatuta, NA edo pasaportearen fotokopia eta argazkia. Txartelak 4 euro balio ditu eta kargatu egin behar da, 5 eurotik 300 euro arako kopuruarekin. Lau urteko bizia du txartelak.

Ohizko erabiltzaileei onurak autobusa askotan hartzen dutenek antzemango diote beharpenari.

## Eskualdez eskualde

Gipuzkoa zonaldeka banatua dauka Lurraldebus zerbitzuak, eta igaro behar diren eskualdeen arabera tarifa desberdinak daude. Donostialde barruan (Andoain, Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil), tarifa bera da. Oinarria 1,10 euro hartu dute eta horren arabera ezarri dute beherapena. Baina eskualde desberdinen artean oinarri desberdinak har-



OTSAILAREN 1 EAN SARTU ZEN  
INDARREAN BUS TXARTELA  
MERKEAGO ESKURATZEKO ESKAINTZA.

tzen dira eta Bizkaiara joateko ere badaude beherapenak. Adibidez, Donostiatik Bilborako txartela 5,37 euro kostako da 40 bidaiara arte.

## Autobus aldaketak aztergai

Autobus bidaiak merketzea aho batez onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, aurreko tarifekin zenbait kexa izan eta gero. Herriren batera joateko autobus bat baino gehiago hartu beharreko kasuetan zer beherapen aplikatu ari dira aztertzen orain. Alegia, Usurbildik Lasartera joateko Errekalderra joan behar da aurrena eta handik Lasartera gero. Orain, 2 bidaia ordaindu behar dira eta etorkizunean zer beherapen aplikatu aztertzen ari dira.

IMANOL UBEDA

## Beharpenez baliatzeko, txartela atera behar da

### BEHERAPENAK (hilabetero)

1-40 bidaia artean, %40.  
41-70 bidai artean, %70.  
71-90 bidai artean, %90.

### TXARTELA

Prentsa saltokietan eta zenbait eraikin publikotan atera behar da. 4 euro balio ditu eta 4 urteko bizia du. Kargatu egin behar da (5-300 euro artean). Txartela pertsonala izango da.

### TXARTELA EGITEKO AURKEZTU BEHARREKOAK Helduak:

-Eskaera inprimakia sinatuta.  
-NA edo pasaporte fotokopia.  
-Argazkia.

### Adingabeak:

-Eskaera inprimakia tutorearen sinadurarekin.  
-Tutorearen NA edo pasaporte fotokopia.  
-Adingabearen argazkia.

### GAUEKO ZERBITZUA

Gaueko bidaiak ez du beherapenik izango, prezio finkoa du, zerbitzu berezia baita.

### HAURREKIN BIDAIATZEA

10 urtetik beherako haurrekin bidaiatzen duenak (4 urtetik behera koetan aulki eta guzti), bere txartelarekin ordaindu ahal izango du haurren bidaia ere, txartela txoferrari emanda.

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**CLIMATA-T**

klimatizazio orokorra

☎ 687 858 390  
climata\_t@yahoo.es

Industri eta iragarki

**SERIGRAFIA  
TANPOGRAFIA**

**OSU**

943 371 954  
UGALDEA POL.36-2-USBIL

Kanalesten inprimakietan

# Autobus Orduetgia

### Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	06.45	06.55	07.05	>>>	07.30
08.10	>>	08.35	08.45		07.15	07.25	07.35	>>	08.00
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	07.45	07.55	08.05	>>	08.30
09.10	09.30	09.35	09.45		08.15	08.25	08.35	>>	09.00
09.40	>>	10.05	10.15	10.25	08.45	08.55	09.05	>>	09.30
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	>>>	10.30
11.40	>>	12.05	12.15	12.25		10.30	10.40	>>	10.45
12.10	12.30	12.35	12.45		10.45	10.55	11.05	>>	11.30
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	11.45	11.55	12.05	>>	12.30
13.10	13.30	13.35	13.45		12.45	12.55	13.05	>>	13.30
13.40	>>	14.05	14.15	14.25		13.30	13.40	>>	14.10
14.10	14.30	14.35	14.45		13.45	13.55	14.05	>>	14.30
14.40	>>	15.05	15.15	15.25	14.45	14.55	15.05	>>	15.10
15.10	15.30	15.35	15.45		14.45	14.55	15.05	>>	15.30
15.40	>>	16.05	16.15	16.25	15.45	15.55	16.05	>>	16.30
16.40	>>	17.05	17.15	17.25		16.30	16.40	>>	17.10
17.40	>>	18.05	18.15	18.25	16.45	16.55	17.05	>>	17.30
18.10	18.30	18.35	18.45		17.45	17.55	18.05	>>	18.30
18.40	>>	19.05	19.15	19.25	18.45	18.55	19.05	>>	19.30
19.10	19.30	19.35	19.45			19.30	19.40	>>	20.10
19.40	>>	20.05	20.15	20.25	19.45	19.55	20.05	>>	20.30
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00	20.45	20.55	21.05	>>	21.30
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	21.15	21.25	21.35	>>	22.00
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05					

00.00 Aiarra jarraitzen du

00.00 Aitlik dator

### Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

#### LARUNBAT GAUETAN

00.00	>>	00.25	00.35	00.45
01.00 <sup>M</sup>	>>	01.25 <sup>M</sup>	01.35 <sup>M</sup>	01.45 <sup>M</sup>
02.00	>>	02.25	02.35	02.45
04.00	>>	04.25	04.35	04.45
05.00 <sup>M</sup>	>>	05.25 <sup>M</sup>	05.35 <sup>M</sup>	05.45 <sup>M</sup>
06.00	>>	06.25	06.35	06.45

#### LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	>>	00.00
00.15 <sup>M</sup>	00.25 <sup>M</sup>	00.35 <sup>M</sup>	>>	01.00 <sup>M</sup>
01.15	01.25	01.35	>>	02.00
02.15 <sup>M</sup>	02.25 <sup>M</sup>	02.35 <sup>M</sup>	>>	03.00 <sup>M</sup>
03.15 <sup>M</sup>	03.25 <sup>M</sup>	03.35 <sup>M</sup>	>>	04.00 <sup>M</sup>
04.15 <sup>M</sup>	04.25 <sup>M</sup>	04.35 <sup>M</sup>	>>	05.00 <sup>M</sup>
05.15	05.25	05.35	>>	06.00

00.00 Zarautz LANEGUNETAN bostak

00.00 Usurbil LANEGUNETAN bostak

00.00 Usurbil LANEGUNETAN bostak

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.39	05.47	06.03	06.14	06.20
06.38	06.45	06.54	07.09	06.17	06.33	06.44	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.03	07.14	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.33	07.44	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.03	08.14	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.33	08.44	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.03	09.14	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.47	10.03	10.14	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.03	11.14	11.20
12.08	12.15	12.24	12.39	11.47	12.03	12.14	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.33	12.44	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.03	13.14	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.33	13.44	13.50
14.08	14.15	14.24	14.39	13.47	14.03	14.14	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	14.17	14.33	14.44	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.03	15.14	15.20
15.38	15.45	15.54	16.09	15.17	15.33	15.44	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.03	16.14	16.20
16.38	16.45	16.54	17.09	16.17	16.33	16.44	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.03	17.14	17.20
17.38	17.45	17.54	18.09	17.17	17.33	17.44	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.03	18.14	18.20
18.38	18.45	18.54	19.09	18.17	18.33	18.44	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.03	19.14	19.20
19.38	19.45	19.54	20.09	19.17	19.33	19.44	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.03	20.14	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.47	21.03	21.14	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39				
22.38	22.45	22.54	23.09	21.47	22.03	22.14	22.20

00.00 Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenerik Igandera eta JAIEGAN  
 00.00 Udan bakarrik 08/06/23 - 08/09/07

Bezeroen arretarako bulegoa 902 54 32 10 www.euskotren.es atcliente@euskotren.es

# Tren Orduetgia

### Eguneko goardiako farmaziak

Otsailak 7, osteguna  
Orua, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Otsailak 8, ostirala  
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Otsailak 9, larunbata  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte  
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil\*

Otsailak 10, igandea  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Otsailak 11, astelehena  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 12, asteartea  
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Otsailak 13, asteazkena  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Otsailak 14, osteguna  
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Otsailak 15, ostirala  
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Otsailak 16, larunbata  
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte  
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil\*

Otsailak 17, igandea  
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Correa Farmazia (22:00-09:00),  
Perkaiztegi kalea, 8 Hernani 943 33 60 22  
\*Usurbilen, soilik eguerdira arte

## Zubieta-Donostia TST autobusak

**ASTEGUNETAN**  
Zubieta-Donostia  
7:55\*/ 9:30(T) / 13:15(T)  
14:35\*(T) / 19:15(T)

**Donostia-Zubieta**  
(Gipuzkoa plazatik)  
7:15\* / 9:00 / 12:45(T)  
13:45\* / 18:45

**LARUNBATETAN**  
Zubieta-Donostia  
8:15(T) / 12:45  
15:15(T) / 21:35(T)

**Donostia-Zubieta**  
(Gipuzkoa plazatik)  
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

**JAI EGUNETAN**  
Zubieta-Donostia  
11:25(T) / 13:30(T)  
15:30(T) / 21:35 (T)

**Donostia-Zubieta**  
(Gipuzkoa plazatik)  
11:00(T) / 13:00(T)  
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da  
\*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40



## Agenda !

### Otsailak 13 asteazkena

- "Nafarroa euskaldunen defentsa sistema, bideo emanaldia eta solasaldia". Sutegin, 19:30ean. Antolatzailea: Nafartarrak.

### Otsailak 15 ostirala

- "Usurbilgo pasarte historikoak, DVDaren emanaldia". Sutegin, gaueko 22:30ean. Antolatzailea: Nafartarrak.

### Otsailak 17 igandea

- "Izotz Aroa 2" pelikula. Arratsaldeko 17:00etan Sutegin.

### Otsailak 20 asteazkena

- Joxe Ramon Mauduit, "Usurbil, haurren herria" hitzaldia. Arratsaldeko 18:00etan Sutegin.

### Otsailak 26 asteartea

- "Mugarik gabeko hirian" filma eta oroimena galtzeari buruzko hitzaldia Amaia Zulaikaren eskutik. Gazteleraz, arratsaldeko 16:00etan Sutegin.

## Otsailaren 23an, errausketaren aurkako bertso-afaria

Andoni Egaña eta Amets Arzallus bertsolariak girotuko dute otsailaren 23an Zubietako Araeta jatetxean egingo den bertso-afaria. 20:30ean hasiko da bertso-afaria eta menua sagardotegikoa izango da. Txartela, 30 euro (haurrak, 12 urtera arte, 15 euro). Afarirako txartelak salgai daude Txiribogan, Bentan, Ardi Beltzen eta Barazarren. Dena den, afarirako txartelak erosteko azken eguna otsailaren 18a izango da.

## Otsailean, KzGunea goizez

Otsailean, goizeko ordutegia-  
rekin irekiko dira  
KzGuneako ateak, ordutegi hone-  
kin: 9:00-13:00. Eskaintza, hona-  
koan ere, oparoa da.



9.00ETATIK 13.00ERA IREKIKO DA  
KZGUNEA OTSAILEAN.

### INTERNET IKASTAROA

Otsailak 4 - otsailak 15 (gazteleraz)

Astelehenetik ostiralera,  
Ordutegia: 9:00-11:00.

### MINTEGIAK

Kontsumitzailea sarean

Otsailak 14 osteguna  
Ordutegia: 11:00-13:00

### Sinadura elektronikoa

Otsailak 15 ostirala  
Ordutegia: 11:00-12:00

### Postal bal bidali

Otsailak 15 ostirala  
Ordutegia: 12:00-13:00

### Bat-baterako mezularitza

Otsailak 18/ otsailak 19  
Ordutegia: 11:00-13:00

### IT TXARTELA AZTERKETA

Otsailak 7 osteguna, 11:00-13:00  
Otsailak 12 asteartea, 11:00-13:00

*KzGunea, Kale nagusia 37*

*Telefono zenbakia: 943 36 14 12*

*tutor.usurbil@kzgunea.net*

## Auzo elkarteak osatzekeo bilera Kalezarren

Kalezarren, auzo elkarte bat osatzekeo asmoa dago. Baina haur, gazte eta helduen beharrak zeintzuk diren ezagutu eta horren arabera hartuko litzateke azken erabakia. Gazte zein helduei zuzendutako deialdi irekia da hau. Otsailaren 9an larunbata egingo da bilera Peña Pagolan. Goizeko 11:15ean hasi eta 13:00erako bukatzekeo asmoarekin. Kalezarreko hainbat bizilagunen ekimenez antolatu da bilera.

## Aginagako eskulan tailerrean izena emateko aukera

Aginagako Antxomolantxa Auzo Elkarteak eskulan tailerra jarri zuen martxan. Izena emateko epea ireki da berriro. Beraz, eskulanten trebatu nahi baduzu, Aginagako Antxomolantxak aukera ederra eskaintzen dizu. Ikastaroa ostiral arratsaldetan eskainiko da, arratsaldeko 17:00etatik 18:30era. Telefono zenbaki honetan eskuratuko duzu informazio gehiago: 650 69 24 58 (Aingeru).

**MIKEL  
IZAGIRRE**  
ELEKTRIZITATEA  
943 365 095  
609 068 111  
GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

**Otar-Goxo**  
Elizkarguak  
Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

**Xukin** Andoni Errazkin  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
663 08 76 71 • USURBIL

### ETXEBIZITZA

- Terrenoa duen borda bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 664774024
- Terrenoa daukan baserri bat erosiko nuke. 664774024
- 75.000 metro karratuko terrenoa daukan baserri bat daukat salgai. Argi indarra telefona eta ura dauka. Agroturismo bat jartzeko oso egokia. 664774024.
- San Esteban kaleko 13 zenbakian 4. solairuko etxe bat daukat alokatzeko. Ez dauka igogailurik. Kontaktuan jartzeko: 943362088
- Etxe bat alokatuko nuke norbaitekin Usurbilen, 639370633 (Bixen).
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Gela bat alokatzen da, pisu konpartituan. Kontaktuan jartzeko: 635 208 551.
- Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta trasteroa. Berritua. 53.000.000 pezeta. 696 693 710.
- Gela bat alokatzen zaio gizonezko langile bati. 250 euro/hilabetean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin eta arropen garbiketa barne. 687348223.
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Hiru logelatako etxe baten bila gabiltza Usurbilen. Agentziarik ez. 616064059.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 33 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- 3 logeletako etxe bat salgai, kaxkoan. Igogailua, ganbara eta balkoiduna. 655 72 06 66.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trasteroarekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil. 687 650 066 (Maria).

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Volkswagen Transporter Shuttle 2.5 TDI, 130 zaldikoa salgai. 2005eko abuztuko. Gris ilun kolorekoa. Lo egiteko prestatua, gortinak, toloa eta hozkailua... 687571009.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Land Rover 4.6 (lp) todoterreno salgai. 8 urte. 455.000 km. Oso ondo zainduta. Extra asko. Ruben. Tfno. 609408401.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaintzak

- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume eskaldun baten bila gabiltza. Ordutegian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- Neska eskaldun (ahal bada) baten bila gabiltza ume bat zaintzeko astean bi goizetan eta zenbait arratsaldetan. 635715142.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udaregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tar-teka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabiltza. 943366710.

#### Lan-eskaerak

- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 636934237.
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Goizez edo arratsaldean lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko

zein etxekolanak egiteko. Egun osoko dispo-nibilitatea. 679742413.

- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lane-tan. 690 784 113.
- Oporrak, ospakizunak, edozein motatako bide-oak montatzen dituen profesionala eskain-tzen da. Telefono zenbakia: 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskain-tzen da. 620 646 769.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Erregeek telebista modernoa ekarri badizue eta zaharra botatzeko asmorik badaukazu, neure-kin kontaktuan jarri: bila joango nintzake: 675 71 72 67. Diru pixka bat ordaintzeko prest nago ere.
- Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditu-gu; bat handia, bestea txikia. Aurkitu baduzu, deitu: 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzatak-o beltz batekin. Aurkitu badituzu eskertuko dugu deitzea: 685 72 56 81.
- Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 110 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez egini-koak. 943 36 20 49.
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Mercedes Vito Mixta 112 CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa... Dena horni-tua, 610 431 999.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Snow egiteko tabla bat fizioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



**Zorionak Intza!**  
Otsailaren 9an egingo dituzu 9 urte. Zorionak eta muxu potolo bat!



**Zorionak bixkik!**  
Inñigok eta Ibanek 26 urte bete dituzte otsailaren 7an. Baiño zein dek bietan zaharrena? Gauian deskubrituko-yau. Zuen zai geudek!!



**Zorionak Gontxalo!**  
Otsailaren 9an urtebe-tetze eguna duzu, ahalik eta ondoen pasau!



**Zorionak!** 6 urte egin-go dituzu otsailaren 8an. Zorionak eta muxu potolo bat amonaren partez.



**Zorionak Ekhi!** Gure mutikuak dagoeneko bost urte otsailaren 11n! Ondo pasa zure eguna eta muxu handi bat.



**Zorionak Goizane!**  
Otsailaren 11n 11 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta zorionak etxe-koen partez.



**Zorionak, Janitz,** otsailaren 25ean Urtebete! Muxu goxo bat etxeko-en partez. Asko maite zaitugu, pila-pila patata tortila!



**"Zorionak Jone eta Ander!** Jonek otsailaren 14an 12 urte beteko ditu eta Anderrek 10 urte otsai-laren 8an. Ondo pasa eta muxu pottoloak Kororen eta familiaren partez!



**Zorionak Paula eta Nahia!** Paulak 8 urte egin ditu urtarillaren 28an eta Nahiak 4 beteko ditu otsailaren 6an. Ondo pasa!

# Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2007 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2007ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzaitezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

# TXOTX!!

*Txotxetik sagardoa jarraitu usatzea!*



Tel.: 943 365 031  
Mugikorra: 670 027 731

Santuenea

## LARRE-GAIN

### DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik apirilera  
**TXOTX GARAIA**  
Ostiral, larunbat eta ingande  
eguerdietan IREKITA  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserrria **Ereñotzu - Hernani**  
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



## SAIZAR

### Betiko Sagardoa

Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228  
www.sidrassaizar.com

## ELUTXETA

### SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA

## ARRATZAIN

DOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.



info@agroturismoarratzain.com  
Arratzainzar Baserrria • Telf: 943 36 66 63

☎ 943 36 12 29

## iruvin

### sagardotegia



Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak  
Petritzeta bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL  
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

## Aginaga

### Sagardotegia

Urte osoan txotxetik



ESTRATA kalea, 7  
Aginaga auzoa, USURBIL  
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10  
Tel.: 943 37 06 68  
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com